


ASOCIACIÓN PARA LA REVITALIZACIÓN DEL BILBAO METROPOLITANO
BILBAO METROPOLITARRA BIRBIZTEKO ELKARTEA

2017 Martxo / 275 Zenbakia



BILBAO METROPOLI-30: WEBGUNE BERRIA
www.bm30.eus

Elkarteak berritu egin du web-gunea, www.bm30.eus helbidera lekualdatuta. Webak diseinu argiagoa eta intuitibo-

goa dauka; gailu eramangarrietara egokituta dago, eta sare sozialetako jarduna txertatuta dauka.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak idazkaritza-teknikoaren lanak egin ditu otsailaren 2tik 15era bitartean egin ziren jardunaldi hauetan: “Sustapen Ekonomiko Iraunkorrari buruzko jardunaldiak. Getxo 2020 arlo estrategikoak”.

Getxo 2020 arlo estrategikoak. Sustapen Ekonomiko Iraunkorrari buruzko Jardunaldiak. (Getxo Elkartegia)

Bost egunez eta 210 pertsonaren parte-hartzearekin egin dira “Getxo 2020 arlo estrategikoak. Sustapen Ekonomiko Iraunkorrari buruzko Jardunaldiak”, Getxo Elkartegiko instalazioetan. Getxoko Udalak Bilbao Metropoli-30 elkartearekin lan-kidetzan antolatutako ekimenak bere helburua bete du: Getxoko udalerrian estrategikotzat jo diren alorrak garatzen eta dinamizatzen lagunduko duten proposamen zehatzetan aurrera egitea. Besteak beste, arlo hauek hartu dira estrategikotzat: kultur eta sormen industriak; kirolaren teknologiak eta industriak; berrikuntza soziala, turismoa eta gastronomia.

Egun horietan zehar, mahai-inguruak eta ikastaroak egin ziren. Horietan, erakundeetako ordezkariak eta hainbat enpresatako profesionalak aztertu zituzten, batetik, aipatutako arlo estrategiko horien baitan, sektore horietako profesionalizazio-esperientzia praktikoak, eta, bestetik, Getxon proiektu bat garatzeko zein behar dauden. Saio

guztietan, honako galdera hau egin zen: “eta zuk, zer behar duzu Getxon zure proiektua garatzeko?”. Zein behar dauden antzemateko eta sarea egiteko helburuarekin, baita negozio-ideiak sortzeko ere.

Jardunaldiek presentzia handia izan zuten sare sozialetan; Facebook eta Twitter bidez, bertaratutako pertsonak jarraipen handia egin zioten.


- Otsailak 2: Getxo, espezializazio adimentsua: “sustapen ekonomiko iraunkorraren aldeko apustua”.

- Otsailak 7: Getxo, IKS: “industria kultural eta sortzaileen aldeko apustua”.

- Otsailak 9: Getxo, BS: “berrikuntza sozialaren aldeko apustua”.

- Otsailak 14: Getxo, KOTI: “kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industrien aldeko apustua”.

- Otsailak 15: Getxok turismoaren aldeko apustua egiten du: “EGK2 Getxoko etorkizun gastronomikoa kozinatzen”. Tamarises Izarra jate-txea.



Uniport: Hausnarketa estrategikoa (Arrupe Etxea)

Uniport portuaren inguruko komunitateak hausnarketarako eta planifikazio estrategikoa egiteko prozesua hasi du, Bilboko portuari laguntzeko dituen funtzioak hobetzera bideratuta. Hala, otsailaren 7an eta 21ean lehenengo bi bilerak egin ziren.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak bazkide sortzaile gisa eta zuzendaritza-batzordeko kide gisa hartzen du parte Uniporten, eta prozesu estrategikoetan daukan esperientzia eta Bilboko metropolialdea osotasunean ikusteko daukan gaitasuna eskaintzen dio elkarteari.



Azkenik, martxoaren 6an, Bilbao Metropoli-30 elkarteko zuzendari nagusia Uniporten zuzendaritza-batzordearen bilerara joan zen. Bilera horretan, 2016ko jardueraren itxiera onartu zen, eta auditoritza-txostena aurkeztu zen. Era berean, lantaldeen, sustapenaren eta hausnarketa estrategikoaren aurrerapenaren berri eman zuten. Bukatzeko, duela gutxi sortutako Euskadiko Mugikortasun eta Logistika Federazioan Uniport ordezkartuko duten ordezkariak izendatu ziren.

Hasiera-bilera: World Cities

Bilboko Udala “World Cities” izeneko Europako proiektuan parte hartzera gonbidatu dute. Proiektu hori Europako hiriek eta beste eskualde batzuek hiri-garapen iraunkorraren arloan dituzten esperientziak trukatu ditzaten laguntza ematera dago bideratuta.



Batzordeak aukeratu ditu jada Europar Batasunetik kanpoko zein hirirekin kolaboratu nahi duen (Hego Korea, Hegoafrika, Australia, Indonesia eta Vietnam), eta interesa duten Europako hiriei gonbidapena egin die elkarrekin lan egiteko, Europako hiri batek hiri ez europar batekin esperientziak parteka ditzan.

Gaur egun, proiektua hasiera-fasean dago; Europako Batzordea parte hartu nahi duten hainbat hiri europarren hautagaitzak jasotzen ari da. Horien artean dago Bilbao. Ondoren, zein hirik hartuko duten parte erabakiko da.

Fase honetan, Bilboko Udalak Bilbao-Metropoli-30 elkartearekin lan egitea eskatu du, hirien garapenerekin estu lotutako agentea baita,

Bilbao Metropoli-30 elkarteak Uniporten bazkide sortzaile eta zuzendaritza-batzordeko kide gisa egiten ari diren hausnarketa estrategikoan hartu du parte; bertan, prozesu estrategikoetan daukan esperientzia eta Bilboko metropolialdea osotasunean ikusteko daukan gaitasuna eskaintzen dion elkarteari.



Otsailaren 14an, Bilbondoko Eroskin bildu zen Aktibatu + Programaren jarraipen batzordea; bertan, Bilbao Metropoli-30 elkarteak ere kolaboratzen du.

bai eta Deustuko Unibertsitatearekin ere. Horiek, Bilboko Udalarekin batera, ikerketa bat egingo dute Europako Batzordean aurkezteko interesak eta proiektuak aztertzeko.



[Aktibatu + programaren jarraipen batzordea](#)

Otsailaren 14an, Bilbondoko Eroskin bildu zen Aktibatu + programaren jarraipen batzordea; bertan, Bilbao Metropoli-30 elkarteak ere kolaboratzen du.

Aktibatu + Bizkaiko Foru Aldundiaren ekimena da, eta ingurumenaren arloko iraunkortasunaren alde herritarren parte-hartzea sustatzeko asmoa dauka. Garbiker Sozietate Publikoarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, Bizkaiko Garraio Partzuergoarekin, Metro Bilbaorekin, Eroski taldearekin, Iberdrolarekin, "La Caixa" Gizarte Ekintzarekin eta Petronorrek elkarlanean sortutako programa da.

Nazio Batuek sustatutako Global Action Plan – Ekintza Plan Globala (GAP) nazioarteko programaren barnean kokatzen den ekimena da. Programa horrek pertsonen ohiturak aldatzeko ideia errazak eta

ekintza praktikoak proposatzen ditu, ikuspegi positibo batetik beti. Helburua baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzea eta planetan duten eragin kaltegarria apaltzea da, etxeko eta tokiko ekonomia sustatzearekin batera.

Aktibatu + programak familiek etxean eta ikasleek ikastetxean aktiboki parte hartzea sustatu nahi du. Behin programa osatuta, gai hauei ekingo zaie: erosketa-hondakinak, ura, energia eta mugikortasuna.



[JAGren konferentzia Diletantes foroan \(Sociedad Bilbaína\)](#)

José Antonio Garrido Elkarteko presidentea gonbidatu dute Diletantes Foroan konferentzia bat ematera. Honako izenburu hau izan zuen: "Herrialde proiektu baterako ideiak". Otsailaren 23an egin zen Sociedad Bilbaína; han, Bilbao Metropoliarra 2035 hausnarketa estrategikoaren ildo nagusiak aurkeztu zituen.

Diletantes foroa Bilboko enpresa eta kultur arloko zenbait ordezkari osatzen dute, eta laguntasunaren, artearen eta giza zientzien balioak sustatzeko helburua dela-eta daude elkartuta.



SKILLS. Diplomak banatzea (Foru Aldundiaren Jauregia)

“Zeure talentuarekin harremanetan” lelopean aurkeztu da programa ospetsu honen zortzigarren edizioa. Programak euren mailako espediente akademiko onenak dituzten eta zenbait gaitasun, esate baterako, lidergorako eta diziplina anitzeko talde-lanerako gaitasuna duten ikasle onenak saritzen ditu.

Horrela, bada, hiru euskal unibertsitateetako Bizkaiko 282 ikaslek Bizkaia talent-en Talentia programa ospetsuaren edizio honetan hartuko dute parte.

Programak Bizkaiko talentuak Euskadiko iritzi-liderrakin eta beste era-

kunde batzuekin harremanetan jartzeari du helburu, besteak beste. Halaber, gure inguruko errealitate zientifiko, teknologiko, enpresarial eta soziala ere erakutsi nahi zaie euskal unibertsitateetako ikasleei.

2015. urteaz geroztik, Bilbao Metropoli-30 lanean ari da lankidetzazko baten bidez bizkaia: talent eta hiru euskal unibertsitateekin elkarlanean, profesionaltasunaren ikuspegitik; hori da Bilbao Metropoliarren garapen estrategikorako zehaztutako bost balioetatik bat.

Hala, tailer bat egin da Bilbao Metropoli-30 elkartearekin batera, enpresek eta antolatzaileek gaur egun dituzten eskariak zeintzuk



Ekintzaitzari, BIZItzari eta Iraunkortasunari buruzko II. jardunaldien barnean, Bilbao Metropoli-30 elkarteak esperientziei buruzko hitzaldi batean hartu du parte, Andrekintzailea programari eta emakumeen ekintzaitza sustatzeari buruz hitz eginez.

diren ezagutzeko, bai eta nazioartekotze jardunaldi bat ere, Gaitasunen Programako parte-hartzaileekin batera.



“Kontzertuaren komunitatea” Topaketa (EITB)

Otsailaren 28an, lehenengo Kontzertu Ekonomikoa sinatu zenetik 139. urteurrena bete zen. Hori dela eta, Kontzertuaren komunitatea – Gurea Kontzertua bildu egin da, Kontzertua euskal gizartean hobeto ezagutu dadin. Elkarteak aipatutako topaketa horretan hartu zuen parte.

Lankidetzaren ekonomiarri buruzko mintegia (BEAZ)

2016. urtean, Eusko Ikaskuntzak hausnarketa egin du garapen sozio-ekonomikoaz, eta paradigma eta eredu sozioekonomiko berriek (Ekonomia Berriak) eskaintzen dituzten aukerei buruz. 2017rako, gure ekonomia eta enpresaren ezaugarri eta balio bereizgarriak aztertzea pentsatu da. Mintegi honen helburua Lankidetzaren ekonomia kontzeptuari buruz hausnartzea da, eta lankidetzaren lehenengo maila bati (Lankidetzaren enpresa barruan) buruzko metodologiak,

proposamenak eta esperientziak aurkeztea.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak aktiboki hartzen du parte ekimen honetan.

II Ekintzaitza, Bizitza eta Iraunkortasuna jardunaldiak

Martxoaren 3an egin ziren Ekintzaitzari, BIZItzari eta Iraunkortasunari buruzko II. Jardunaldiak, DEMA Enplegu eta Ekintzaitzarako Foru Agentziak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta berdintasuna Sustatzeko Sailak sustatuta.

Jardunaldiak agente ezberdinen arteko topaketa, hausnarketa eta proposamenetarako gune izan nahi du, gaur egungo ekintzaitzaren ekosistema hobetzen lagunduko duten esperientziak partekatu nahi dituztenentzat. Ekosistema horrek gure sasoiko erronka sozioekonomiko handietako asko partekatzen ditu.

Bilbao Metropoli-30 elkarteak esperientziei buruzko hitzaldi batean hartu du parte, Andrekintzailea programari eta emakumeen ekintzaitza sustatzeari buruz hitz eginez.



prentsa aldizkaria

Bilbao Metropoli-30 en web orrialdeko Prentsa Aretoan hurrengo albisteak irakur daitezke:

- Getxo teje su red de negocio estratégico. Deia, 24-02-2017.
 - Google y la NASA buscan a los emprendedores más disruptivos. Estrategia Empresarial, 01-02-2017.
 - Jornadas de Promoción Económica Sostenible. Getxoherri, 26-01-2017.
 - Getxo analiza sus sectores clave en la economía. Deia, 25-01-2017.
 - Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”. Europa Press, 12-01-2017.
 - Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”. La Vanguardia, 12-01-2017.
 - Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”. Europa Press, 12-01-2017.
 - Bilbao acogerá el 19 de enero la presentación del “Singularity University Global Impact Challenge”.
- iversity Global Impact Challenge”. eldiarionorte.es, 12-01-2017.
 - Los cinco magníficos. Periódico Bilbao, 01-01-2017.
 - 2016ko Bilboko Ospetsuak. Periódico Bilbao, 01-01-2017.
 - Tipos de interés... ilustres. Deia, 19-12-2016.
 - “Sois los nuevos faros de la ciudad”. El Correo, 15-12-2016.
 - Los que dan lustre a Bilbao. Deia, 15-12-2016.
 - Aburto condecora a los cinco Ilustres de Bilbao de este año. El Nervión, 15-12-2016.
 - Los nuevos Ilustres de Bilbao. ElCorreo.com, 15-12-2016.
 - Aburto entrega las distinciones a los cinco nuevos “Ilustres de Bilbao 2016”. Europa Press, 14-12-2016.
 - La ‘B’ de Bilbao tiene cinco nuevos embajadores. El Correo, 02-12-2016.
 - Iribar hace doblete y también recibirá el premio Ilustre de Bilbao. Deia, 02-12-2016.



www.bm30.es/prensa

OTSAILAK 1

SKILLS Programa. Tailerra: Irteera profesionalak. Elkargoetako egoitzak.

OTSAILAK 2

"Getxo 2020 arlo estrategikoak. Sustapen Ekonomiko eta Iraunkorrari buruzko Jardunaldiak". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 7

Getxo IKS: "industria kultural eta sortzaileen aldeko apustua". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 7

Uniporten Hausnarketa Estrategikoa. Arrupe Etxea.

Bilbao Metropolitarraren lurralde estrategiari buruzko foroa. Burtsa eraikina.

OTSAILAK 7-9

SKILLS programa. Talde-laneko tailerra. UD/UPV-EHU.

OTSAILAK 8

SKILLS programa. Etika eta Balioen tailerra. Elkargoen Egoitzak.

OTSAILAK 8

Hasierra-bilera: World Cities. Bilbao Metropoli-30 elkarteak.

OTSAILAK 9

Getxo BS: "berrikuntza sozialaren aldeko apustua". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 9

BiDCKo Kontseilua. BEAZ.

OTSAILAK 14

Getxo KOTI: "kirolaren eta ongizatearen teknologia eta industriari buruzko apustua". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 15

Getxok turismoaren aldeko apustua egiten du: "EGK2 Getxoko etorkizun gastronomikoa prestatzen". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 14

Aktibatu + programaren jarraipen batzordea. Eroski Bilbondo (Basauri).

OTSAILAK 14

Bilbao Metropolitarraren Lurralde Estrategiari buruzko foroa. Burtsa eraikina.

OTSAILAK 15

Getxok turismoaren aldeko apustua egiten du: "EGK2 Getxoko etorkizun gastronomikoa prestatzen". Getxo Elkartegia.

OTSAILAK 21

Uniporten Hausnarketa Estrategikoa. Arrupe Etxea.

OTSAILAK 22-23

SKILLS programa. Marka pertsonaleko tailerra. UPV-EHU/UD.

OTSAILAK 23

José Antonio Garridoren konferentzia Diletantes foroan. Sociedad Bilbaina.

OTSAILAK 24

SKILLS. Diplomak banatzea. Foru Aldundiaren Jauregia.

OTSAILAK 27

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea. Bilboko Udala.

OTSAILAK 28

SKILLS programa. Autoezagutzako eta Adimen Emozionaleko tailerra. UD/MU.

OTSAILAK 28

"Kontzertuaren komunitatea" Topaketa. EITB.

MARTXOAK 2

II Ekintzailetza, Bizitza eta Iraunkortasuna jardunaldiak. Paraninfo UPV.

MARTXOAK 3

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea. Bilboko Udala.

MARTXOAK 6

Uniporten Zuzendaritza Batzordea. Uniport. Uniport.

MARTXOAK 7

SKILLS programa. Aurrez aurreko tailerra jardunean dauden profesionalekin. Elkargoen Egoitzak.

MARTXOAK 9

Bilboko Euskararen Aholku Batzordea. Bilboko Udala.

MARTXOAK 9

Mintegia: Lankidetzaren ekonomia. BEAZ.



Asociación para la Revitalización del Bilbao Metropolitano
Bilbao Metropolitarraren Birbizteko Elkarteak
Gran Vía, 45. 48011 Bilbao.

Tel: 944 158 685 - Fax: 944 153 424

Email: info@bm30.es - URL: <http://www.bm30.es>

Facebook: <http://www.fb.com/BilbaoMetropoli30> Twitter: @BilbaoMetropoli

EUSKO JAURLARITZA 1992KO EKAINAREN 9AN
HERRI-ONURAKONTZAT AITORTUTAKO ERAKUNDEA